

3.629 ikusle Poltsiko Antzerkia Jaialdiaren XXIX. edizioan

Antolakuntzak Poltsiko Antzerkiaren 29. jaialdiaren balantze oso ona egin du, bai kopuruari bai kalitateari dagokionez. Aurten, batez beste, 3.629 lagun bertaratu dira umoreaz, musikaz eta kabaretaz goatzera urtarrilaren 29tik otsailaren 16ra.

Bereziki nabarmendu nahi dugu otsailaren 15ean Intxaurren Kultur Etxean egindako jaialdiaren itxiera festak 280 ikusle izan zituela.

Egun hauetan zehar 16 konpainia izan ditugu 26 agertokitan banatuta; guztira, 34 emanaldi. Beste urte batzuetan bezala, aurten ere arreta berezia eskaini zaio bertako sorkuntzari eta 16 emanaldi euskaraz izan dira. Generoari dagokionez, 17 ikuskizunetan emakumezkoak izan dira protagonista, 2 mistoak izan dira eta gainerako 15etan gizonezkoak.

Ikusleek aurten ere oso ondo jaso dute jaialdia eta ez bakarrik emanaldietan, baita sare sozialetan ere (Twitter, Instagram eta Facebook), gero eta jarraitzaile gehiago pilatuz. Poltsiko Antzerki Jaialdiak beti izan du ikuslego fidela eta urtetik urtera gehiago batzen doaz jada Donostiako kultur programazioko klasiko den hitzordu honetan.